

“EZ DA ZERGAK ETA TASAK IGOTZEKO MOMENTUA, UDALAK EGIN BEHAR DU LEHENTASUNAK EZARRI ETA GASTUA MURRIZTEKO ESFORTZUA”

- EAJ udal taldeak azaldu duenez bere proposamenek 3 ardatz dituzte, herritarrak, oro har, Oñatiko enpresa txikiak eta gazteak; baina azpimarra zergak eta tasak izoztean jarri dute, hainbat herritarrek bizi duten egoera ez okertze aldera.
- “Saiatu gara zergak izozteko akordioa lortzen baina udal gobernuak nahiago izan du aurrekontuetan lehentasunak ezartzeko esfortzua egin ordez oñatiarren bizkar 200.000 eurotan udalaren diru-sarrerak handitu”.

Gaur egin du Oñatiko Udalak 2021eko Ordenantza Fiskalak onartzeko ezohiko osoko bilkura. EH Bilduk zergak igotzeko bere proposamenari eutsi dio eta EAJk, zergak igotzeko momentua ez dela iritzita, izozteko proposamenaren alde bozkatu du.

Joan den asteko ogasun batzordean aurkeztu zuen udal gobernuak bere proposamena eta EAJ udal taldeak ere jarri zuen berea mahai gainean, batzordean bertan ahoz eta ondoren idatziz. Zerga eta tasak izoztearen alde egin zuten jeltzaleek, bizi dugun ziurgabetasun momentu honetan herritarrei esfortzu bat egiteko eskatzeko baino udalak lehentasunak ezarri eta gastua murrizteko momentua dela argudiatuta.

“Udal gobernuak zergarik garrantzitsuenak igotzeko proposamena aurkeztu zigun eta ezin dugu horrekin bat egin, izan ere, ez dugu uste COVID-19ak sortutako beharrei aurre egiteko biderik egokiena zergak igotzea denik eta herritarrei esfortzu bat eskatzea baino udal aurrekontuetan lehentasunak ezartzen ahalegintzea egokiagoa dela uste dugu” azaldu du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak.

Udal talde jeltzaleak azaldu duenez, EH Bilduren proposamenak honako igoerak jasotzen ditu:

- A. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)
 - Ondasun hiritarren gaineko zergan (etxebizitzetarako dagokiena) % 5,29ko igoera
 - Lurzoru Industrialean eta Hirugarren Sektorean (Zerbitzuak) % 1,80ko igoera
- B. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ): %6,97ko igoera
- C. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga: %5,55eko igoera

EAJ udal taldearen ustez, EH Bilduk eskualde mailan zergak harmonizatzeko beharri egindako aipamena aitzakia baino ez da “EH Bilduk zerga eta tasetan azken urteotan hartutako erabakiei begiratuta ez daukala ez hanka eta ez bururik proposamen honek. Aurreko legealdian, urtetik urtera udal zergak eta tasak izoztea izan zen EH Bilduren irizpide orokorra eta 2020ko ordenantza fiskaletan KPIa baino ez zen igo. Udalak beste zerga batzuetatik diru-sarrera nahikoa zuenen ez zen beharrezkoa ikusi udal zerga eta tasak eskualdeko beste udalekin harmonizatzea. Orain ordea, diru-sarrerak gutxitu direnean, oñatiarren bizkar konpentsatu nahi da diru-sarrera jaitsiera hori, harmonizazioaren aitzakipean. Benetan uste al du EH Bilduk orain dela igoerak aplikatzeko momentua? Oñatiarrak egoerarik zaugarrienean daudenean udal zergak igotzea logikoa al da azken urteetan izoztuta eduki ondoren? Pentsatu al du udal gobernuak oñatiarrengan edo bere udal kontuak koadratzean bakarrik pentsatu du?” aurpegiatu dio Ainhoa Galdosek udal gobernuari.

EAJ udal taldearen proposamena

EAJ udal taldeak azaldu duenez bere proposamenek 3 ardatz dituzte, herritarrak, oro har, Oñatiko enpresa txikiak eta gazteak; baina azpimarra zergak eta tasak izoztean jarri dute, hainbat herritarrek bizi duten egoera ez okertze aldera eta honako proposamena aurkeztu dute:

1. **2021erako udal-tasa eta zerga guztiak izoztea**
2. **Covid-19ak sortutako krisia Oñatiko jarduera ekonomiko txikietan, bereziki merkataritzan eta ostalaritzan izaten ari den eragina arintzeko udalak dituen tresnak erabiltzea.**

- 2.1. Zabor eta hiri hondakin solidoak etxez etxe biltzeagatiko tasari hobaria aplikatzea.**

Hobariak: Komertzioa eta ostalaritzan, hiru hileko kuota. 2 eta 5 enplegutaraino dituzten **tasetan, %25- tik gorako hobaria.** Iaz, bereziki herriko merkataritzak dagoeneko bizi zuen krisia aintzat hartuta, %25eko hobaria aplikatzea proposatu genuen eta Covid-19ak okertu duen egoera honi aurre egiteko hobari hori %25etik gorakoa izatea adostu nahiko genuke udal gobernuarekin.

- 2.2. Terrazen eta mahaien gaineko tasari buruzkoa.**

Osasun larrialdia dela eta gorde beharreko distantziak betetzeko terrazetako mahai eta aulkiak bide-publikoan espazio gehiago hartu behar duten kasuetan, kostu gehigarririk gabe espazio gehiago hartzeko aukera ematea (krisi mahaian dagoeneko adostu zen moduan).

3. **COVID-19ak sortutako krisiak, gazteengan duen eragina arintzeko hobariak**

COVID-19ak sortutako krisiak dagoeneko zaila zen gazteen lanerako sarbidea are gehiago zaildu du. Lanean hasteko adina atzeratu da eta lan baldintzak ere ez dira onak. Proposamena: **kirol ekintzetako tasetan** (igerilekua, frontoia, tenis pista, etab...) tasaren murrizketarako adinaren erreferentzia hartzen duten atal eta azpiatal guztietan 21 urtera arte ezarrita dagoen **adin epea 23 urtera arte luzatzea.**

Proposamenak adosteko saiakera

Proposamenak adosteko ahalegina egiteko, ostiralean batzartu ziren udal gobernuak eta EAJ udal taldea, baina adostasunik lortzea ezinezkoa izan da jeltzaleek azaldu dutenez “gure marra gorria zergen izoztean zegoen, ez dugu uste igotzeko momentua denik, baina udal gobernuak igoera aplikatzeko zuen asmoa ere mugiezina zen, beraz, ez dugu adostasunik lortu” azaldu du Galdosek.

Adostasunik gabe, udal gobernuak, duen gehiengoa baliatuta, zergak igotzeko proposamena aurrea ateratzea lortu du eta jeltzaleen zergak izozteko proposamenak EAJren aldeko bozkak bakarrik jaso ditu. “Saiatu gara zergak izozteko akordioa lortzen baina udal gobernuak nahiago izan du aurrekontuetan lehentasunak ezartzeko esfortzua egin ordez oñatiarren bizkar 200.000 eurotan udalaren diru-sarrerak handitu” amaitu du Ainhua Galdosek.

"NO ES EL MOMENTO DE SUBIR IMPUESTOS Y TASAS, ES EL AYUNTAMIENTO QUIEN DEBE HACER EL ESFUERZO DE PRIORIZAR Y REDUCIR EL GASTO"

- **El grupo municipal EAJ-PNV ha explicado que sus propuestas se centran en 3 ejes, la ciudadanía en general, las pequeñas empresas y las y los jóvenes de Oñati; pero han puesto el acento en la congelación de impuestos y tasas para no empeorar la situación que vive parte de la ciudadanía de Oñati.**
- **"Hemos intentado llegar a un acuerdo para congelar los impuestos pero el gobierno municipal ha preferido aumentar los ingresos municipales en 200.000 euros a costa de las y los oñatiarras en lugar de hacer un esfuerzo para establecer prioridades presupuestarias".**

El Ayuntamiento de Oñati ha celebrado hoy un pleno extraordinario para aprobar las Ordenanzas Fiscales de 2021. Eh Bildu ha mantenido su propuesta de subir los impuestos y EAJ-PNV ha votado a favor de su propuesta de congelación al considerar que no es el momento de subir los impuestos. El gobierno municipal presentó su propuesta en la comisión de hacienda de la semana pasada y el grupo municipal EAJ-PNV también expuso su propuesta que presentó posteriormente por escrito. Los jeltzales abogaron por la congelación de impuestos y tasas, argumentando que es momento para que el ayuntamiento establezca prioridades y reduzca el gasto más que para pedir a la ciudadanía un esfuerzo fiscal en este momento de incertidumbre. "El gobierno municipal nos presentó una propuesta que incluía subir los impuestos más importantes y no podemos sumarnos a ella, porque no creemos que la vía más adecuada para hacer frente a las necesidades generadas por la COVID 19 sea subir los impuestos y creemos que es más adecuado intentar establecer prioridades en los presupuestos municipales que pedir un esfuerzo a la ciudadanía" ha explicado la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos.

El grupo municipal jeltzale ha explicado que la propuesta de EH Bildu incluye los siguientes incrementos:

- A. Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)
 - Incremento del 5,29% en el Impuesto sobre Bienes Urbanos (vivienda)
 - Incremento del 1,80% en Suelo Industrial y Tercer Sector (Servicios)
- B. Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE): incremento del 6,97%
- C. Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica: incremento del 5,55%

El grupo municipal EAJ-PNV considera que la alusión de EH Bildu a la necesidad de armonizar los impuestos a nivel comarcal no es más que una excusa "atendiendo a las decisiones adoptadas por EH Bildu en los últimos años en materia de impuestos y tasas esta referencia carece de sentido. En la pasada legislatura, el criterio general de EH Bildu fue congelar los impuestos y tasas municipales año tras año y en las ordenanzas fiscales de 2020 sólo subió el IPC. En los momentos en los que el Ayuntamiento tenía ingresos suficientes de otros impuestos no EH Bildu no vio necesario armonizar la política fiscal a nivel comarcal. Ahora bien, cuando los ingresos han disminuido, trata de compensar ese descenso de ingresos a costa de las y los oñatiarras, bajo el pretexto de la armonización. ¿Cree de verdad EH Bildu que ahora es el momento de aplicar las subidas? ¿Es lógico subir los impuestos municipales cuando las y los oñatiarras están en la situación más vulnerable tras tenerlos congelados en los últimos años? ¿Ha pensado el gobierno municipal en las y los oñatiarras o tan sólo en cuadrar sus cuentas municipales?" ha reprochado al equipo de gobierno la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos.

Propuesta del grupo municipal EAJ-PNV

El grupo municipal EAJ-PNV ha explicado que sus propuestas tienen 3 ejes, la ciudadanía en general, las pequeñas empresas y las y los jóvenes de Oñati; pero han puesto el acento en la congelación de

impuestos y tasas para no empeorar la situación que viven parte de la ciudadanía de Oñati y han presentado la siguiente propuesta:

- 1. Congelación de todas las tasas e impuestos municipales para 2021**
- 2. Utilizar las herramientas con las que cuenta el ayuntamiento para paliar el impacto que la crisis generada por la Covid-19 está teniendo en las pequeñas actividades económicas de Oñati, especialmente en el comercio y la hostelería**
 - 2.1. Bonificación de la tasa por recogida domiciliaria de residuos sólidos urbanos y basura.**

Bonificaciones: comercio y hostelería, cuota trimestral. Bonificación superior al 25% en las tasas de negocios con 2 a 5 empleados. El año pasado, atendiendo a la crisis que ya vivía el comercio local, propusimos aplicar una bonificación del 25% y nos gustaría acordar con el gobierno municipal una bonificación superior al 25% para hacer frente a esta situación que ha empeorado la Covid-19
 - 2.2. Tasa sobre terrazas y mesas**

En los casos en los que las mesas y sillas de las terrazas deban ocupar más espacio en la vía pública para cubrir las distancias a guardar por la emergencia sanitaria, permitir ocupar más espacios sin coste adicional (tal y como ya se acordó en la mesa de crisis).
- 3. Bonificaciones para paliar el impacto de la crisis generada por la COVID-19 en los jóvenes**

La crisis generada por la COVID-19 ha dificultado aún más el acceso al trabajo de las y los jóvenes que ya era difícil. Se ha retrasado la edad de incorporación al trabajo y las condiciones laborales tampoco son buenas. Propuesta: ampliar de 21 a 23 años la edad establecida en todas las secciones y subsecciones que incluyan la referencia de edad para la reducción de las tasas de actividades deportivas (piscina, frontón, pista de tenis, etc.).

Intento de consensuar propuestas

El pasado viernes el grupo municipal EAJ-PNV se reunió con el equipo de gobierno para intentar consensuar las propuestas pero, según explican los jeltzales, no fue posible alcanzar un acuerdo. "Nuestra línea roja estaba en la congelación de impuestos, no creemos que sea el momento de subirlos, pero la intención del gobierno municipal de aplicar la subida también era inamovible, por lo que ha sido imposible llegar a un acuerdo" ha explicado Galdos.

Sin consenso, el gobierno municipal, haciendo uso de la mayoría que ostenta, ha logrado sacar adelante su propuesta de subir los impuestos y la propuesta jeltzale de congelarlos solo ha recibido los votos favorables EAJ-PNV. "Hemos intentado llegar a un acuerdo para congelar los impuestos pero el gobierno municipal ha preferido aumentar los ingresos municipales en 200.000 euros a costa de las y los oñatiarras en lugar de hacer un esfuerzo para establecer prioridades presupuestarias" ha concluido Ainhoa Galdos.